ERAITSITAKO PAGOAK


Xynthia zikloia erdi mailako latitudeetako zikloia izan zen. Hura Ozeano Atlantikoan sortu zuen, 2010eko otsailaren 26 eta 28 artean. Eragindako haizeek 180 km orduko abiadura lortu zuten zenbait puntutan. Xynthia zikloak ziklogenesi leherkorreko prozesua izan zuen, Madeiratik pasatzerakoan, eta ekialderantz jotzerakoan, depresioa areagotu egin zen.

Haizeak bereziki bortitzak izan ziren, babesik gabeko gune menditsuetan, esate baterako, Anboto mendi magalean kokatutako berrogeita hamar pago motz eraitsi zituen, Atxondoko udalerritik hegoaldean (Bizkaia), Arabako Lurralde Historikoaren mugatik eta Arrazola landa gunetik gertu.

Basoko zenbait alek haize bortitzak gainditzea lortu zuen, 2009. urteko zikloi aurreko ortoargazkiaren eta 2015eko ortoargazkiaren arteko konparazioan atzematen den bezala. Azken horretan, hildako pagoak argi eta garbi atzematen dira, hostorik gabe, lurrean. Horiek guztiak norabide berberean kokatuta zeuden (NW-SE) eta aire zabaleko sustrai-lurrekin ikusgai.



Eraitsitako pagoen kokapena, Arrazola hiru gunearekiko eta Anboto mendiarekiko.



Ortoargazkia 2014. Pagoen kokapena Anboto mendi hegalean.
Iturria: Google Earth.



Ortoargazkia 2009.Iturriae Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Pagoen taldea zikloa pasa baino lehen.



Ortoargazkia 2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi. Geografia Erakunde Nazionala.
UTM 30N ETRS89 // X: 533318 m // Y: 4770121 m // Z: 827 m.
Haizeak eraitsitako pagoen taldea.